



## KANALAK

Gure proiektua zabaltzeko asmoz, komunikazio kanalak erabiliko ditugu; hala nola, hitzaldiak, sare sozialak eta kartelak. Horien bidez, herritarrek gure proiektuaren berri izatea da helburua, eta hori modu erraz, dinamiko eta argian egitea.

Alde batetik, sare sozialak eta web-guneak erabiltzean, ez dugu bitartekaririk erabiltzen, beraz, kanal zuzena erabiliko dugu gure proiektuaren berri emateko. Sare sozialetan, Facebook edota Instagram bezalakoetan, kontu bat sortuko genuke. Kontu horretan, lokalaren inguruko argazkiak, bideoak, webgunerako sarrera zuzena... eskainiko genuke. Web-gunean aldiz, gure proiektua hobeto azalduko genuke: nortzuk garen, nondik gatozen, nola egiten dugun lan... Horretaz gain, proiektua finantzatzeko erabiliko ditugun kamisetak, jertseak... bertatik erosteko aukera izango da.

Bestalde, kartelak ere sortuko ditugu, gure proiektuaren inguruko beharrezko informazioa adieraziz. Herritik zehar bananduko ditugu horiek eta modu original eta argi bat erabiliz informazioa helarazten saiatuko gara.

Azkenik, hitzaldiak ere eskainiko ditugu, eta bide hau, teknologiarekin hain trebeak ez direnak eta web-gunera sartzeko arazoak dituzten, edo sare sozialik ez dituzten pertsonen gure proiektuaren berri emateko bidea izan daiteke.

**ZaLaBi**